ASTEKARIA | 2017ko otsailaren 24an | XX. urtea | USURBIL | 689. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua



11.057.464 eurokoa izango da 2017ko udal aurrekontua

Maiatzaren 7ko herri kontsulta: galdera hautatzeko garaia da

Ostiralean Sutegin 'Landaberri mende erdi' antzezlana

## Zubietako Euskal Inauteriaren ondoren,

# iritsi da mozorrotzeko garaia







# Tapak eta aurkibideak prest




**Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.**

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

## Albistea iruditan

# Presa handiagoa izan zuten inauguratzeko

Abenduaren 2an inauguratu zuten Urbil merkataritza-gune ondotik doan bidegorriaren zatia. Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari propio lagatako lur eremua izanik ere, aurkezpen ekitaldira ez zuten Usurbilgo Udala deitu. Lasarte-Oriako alkatea eta Foru Aldundiko ordezkaria baino ez ziren agertu inaugurazioko argazkian. “Prentsaren bidez jakin dugu inaugurazio horren berri”, kexu azaldu zen Xabier Arregik gidatzen duen gobernu taldea. “Errespetua eskatzen dugu. Ez da gizabidezkoa, ez politikoki ezta pertsonalki ere, Usurbilgo lurretan bidegorria estreinatu eta Udalari inolako jakinarazpenik ez luzatzea”.

Inaugurazioa “interes propagandistiko hutsezkoa izan da, alderdi interesei erantzuten diena eta ez herrien interesei. Ez zuten gu argazki horretan agertzea nahi”, kexu zen Usurbilgo Udala.



**Hiru aste dira luizia gertatu zenetik. Bere horretan jarraitzen du Urbil ondoko bidegorri zatiak.**

**Bi hilabetera, lur-jausia**

Inauguratu eta bi hilabetera, euriteek lur jausi bat eragin zuten Urbil ondoko bidegorri zatian. Luizia eman zenetik hiru bat aste pasa dira eta bere horretan jarraitzen du. Inaugurazioko argazkian ateratzeko izan zuten presa eta kemen berbera izango balute luizia konpontzeko.

## Laburrean

### Martxoan goizez irekiko dute KzGunea

Otsailaren 28ra arte arratsaldez zabalduko dute KzGunea: 16:00-20:00. Martxoan goizez: 09:00-13:00. Lehen ikastaroa, hauxe: “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi” (Martxoak 1-14, 09:00-11:00).

### Otsailaren 25ean, 1956koen afaria Saizar jatetxean

1956an jaiotakoak otsailaren 25ean larunbata elkartuko dira Saizar jatetxean. Aurretik izena eman beharra dago, ordea. Telefono zenbaki honetara deitu behar duzue: 943 362 555 (Mari Karmen).

### Txori kabiak doan eskuratzeko aukera

Iaz bezala, txori kabiak eskuragarri jarri ditu Alkartasuna Nekazal Kooperatibak. Doan lortu daitezke, Atallun duten egoitzara gerturatuta. Informazio gehiago: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com www.alkartasuna.eus

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai. **Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda. **Idazkaria:** Aizpea Aizpurua. **Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus **Diseinu berria:** Erroitz S. L. **Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte. **Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta. **Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola. **Tirada:** 2.800 ale. **Lege–Gordailua:** SS-668-96 **ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Luis Aranalde

# 50 urte zurekin

Abenduaren 17an ospatu zen Donostiako Kursaalean Gipuzkoako Caritasen 50. urteurrena “50 urte zurekin” lelopean. Sei hilabetez iraungo dute ospakizunek; ekintzen artean: hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak Santa Marian eta San Bizenten eta abar. Zalantzarik gabe Caritas da Elizaren inguruan dabiltzan erakundeen artean izen onena duena, gehien baloratuena.

Caritasen helburua zera da: pobrezia eta bazterkeria jasaten duten pertsonei laguntza ematea. Horrez gain, larrialdi ekintzak antolatzea. Pobrezia kroniko eta iraunkorrenetan laguntzen du. Une historiko bakoitzari zegozkion seinaleak aztertu eta bereizten ere saiatu da. Sentsibilizazio kanpaina eta ekintza esanguratsu ugari burutu ditu pertsonei harrera eta laguntza emateko.

Bere ibilbidearen etapa nagusienak hauek aipatuko nituzke:

1- Espainiako gerra ostean jaio zen elizaren karitatearen idazkaritza 1950 inguruan. Ondoren, hiri bakoitzean sortzen hasi ziren Caritasen idazkaritzak. Gipuzkoan 1966an gauzatu zen eta 70. hamarkadan beharrean zeuden familiei laguntzeaz at, txaboletan bizi ziren ijito elkarteei laguntza eskaintzen zieten eta urik eta argirik gabe bizi ziren zenbait familiari.

2- 1980 inguruan sortu zituen lehen zentroak tratu txarrak jasaten zituzten emakumeei lagundu ahal izateko. Eta Fraisoro itxi zenean, ama ezkongabeei laguntzeko harrera etxebizitzak sortu zituen. Hamarkada honetan gainera, sozietateak drogaren sekulako zigorra jasan zuen; milaka gazte erori ziren bere hatzaparretan. Gazte horiei eta beren familiei laguntzeko Izan fundazioa sortu zuen 1983an.

3- 1990eko hamarkadan krisi ekonomiko handian murgildu zen gizartean; krisiaren ondorioz, langabezia tasa asko igo zen eta pertsona eta familia ugari pobrezian erori ziren. Orduan, Caritas pobrezia eta bazterkeria jasaten zuten pertsona eta familiei arreta ematen hasi zen, laguntza eskainiz eta prestakuntza guneak sortuz beren etorkizuna eraiki ahal zezaten. Garai hartan sortu ziren SAREA fundazioa pertsonei enplegurako prestakuntza emateko, VILLA BETANIA hiesa zutenei laguntzeko, ATERPE jantokia, HURKOA adinekoei eta buruko gaixotasunak zituztenei arreta emateko eta laguntzeko. Sustatu dituen azken proiektuak izan dira: MIRIAM, emakumeei eta bereziki prostituzioan aritzen direnei laguntza emateko eta HOTZALDI, etxerik ez duten pertsonei arreta emateko.

Bi erronka nagusi ditu gaur Caritasek: ekintzak gauzatzen jarraitzea bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat (hots, etxerik gabekoak, prostituitutako emakumeak, baliabiderik gabeko familiak, haur pobreak..); horretarako, pertsona horiei guztiei harrera egitea, arreta ematea, laguntzea eta bizitza duinagoa ematea ahalbidetzen duten programak jarriko ditu abian. Eta bigarrenez: “jende gazte boluntario gehiago gureganatzea; horiei esker gure presentzia sare sozialetan handiagoa izango litzateke. Izan ere, boluntario gehienok adinez aurrera goaz”.

Mila boluntariotik gora ari dira lanean Caritasen. Beraiek diotenez, euskal gizartea oso eskuzabala da. “Deia egiten dugun bakoitzean oso ondo erantzuten du”, dio arduradunetako batek. Egun, Gipuzkoatik at ere laguntzen du, adibidez, Iraken eta Sirian.

Mundu guztiak ez du estimatzen Caritasen lana; batzuek limosna zaletzat gisa salatzen dute. “Hori ez da egia”, dio Maribel Alonso arduradunak; “guk beti pertsonaren promozioan lan egiten dugu eta”.

Bi esaldi amaitzeko: “guk ez daukagu makilatxo miragarririk, baina, jendeak konfiantza dauka guregan” (Maribel Alonso, arduradun ohia).

“Hogei urte daramatzat lanean Caritasen eta lan oso esker onekoa da, ematen duzuna baino gehiago jasotzen duzu eta” (Tomas Elizasu, boluntarioa).

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | **Luis Aranalde**

# “Sagarrondotik sagardora” ikastaroa

Otsailaren 11n abiatu zen irailera arte luzatuko den “Sagarrondotik sagardora” ikastaro zikloa, Aitor Etxeandiak bideraturiko “Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa” saioarekin. Hurrengo saioak martxoan izango dira. Gogoan izan ikastaro osorako nahiz saio solteetarako izena eman daitekeela aurrez:

■ Martxoak 4: “Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak”, Aitor Etxeandiaren eskutik.

■ Martxoak 11: “Fruitu arbolen udaberriko edo zotzeko txertaketa”, Josu Osaren eskutik.

Ordutegia: 09:00-13:00.

Tokia: Potxoenea.

**Izen ematea**

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

www.alkartasuna.eus

Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.



**Martxoaren 4ko saioan ere, Aitor Etxeandia izango da hizlaria.**

## Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

Amarako eta Arasoko lan-egoitzetako makinariek lan uzte gehiago iragarri dituzte Zumaia-Donostia eta Lasarte-Oria-Hendaia lineetan:

■ Otsailak 23: 6:55-9:05/17:55-20:05.

■ Otsailak 27: 7:25-9:35/18:25-20:35.

Informazio gehiago:
euskotren.eus
902 543 210
Twitterren:
@euskotrenEJGV
@EuskotrenAmara

# 11.057.464 eurokoa izango da 2017ko udal aurrekontua

Hasierako onespena eman ostean eta finkatua zegoen epe barruan inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuenez, Usurbilgo Udalak behin betiko onartu zituen 2017rako aurrekontuak otsailaren 1ean. Duela urtebete aurkeztu zuen udal gobernu taldeak, udal langile, eragile eta herritarrekin batera landutako legegintzaldi honetarako udal gobernu programa. Gobernu programa hartan bildutako ekarpen eta erronkei erantzungo diote neurri handi batean, 2017ko udal aurrekontuek.

Guztira, 11.057.464 euro bideratuko ditu Udalak egitasmo edo inbertsio ezberdinetara. 2011. urteaz geroztik ez du tamaina honetako aurrekonturik izan udalerri honek. Urte hartatik 2011tik 12ra izandako 3 milioi euroko murrizketaren ostean, pixkanaka gorantz doa udal aurrekontuotako diru kopurua.

## Aurtengoa, superabitarekin

Aurtengoek 827.378 euroko superabit arrunta dute. Sarrerei dagokienez, transferentzia arruntak eta zuzeneko zergak izango dira udal aurrekontuon diru-iturri nagusiak. Pertsonal gastuetara eta ondasun arrunten erosketara bideratuko da diru kopuru gehien.



Otsailaren lehenean, behin betiko onartu ziren 2017 urteko udal aurrekontuak. Argazkia, artxibokoa.

*INBERTSIOEK, GORA*

***Udal aurrekontu hauetan, nabaria da inbertsioetan izango den gorakada. Iaztik hona, %23ko igoera eman da"***

Nabaria da baita inbertsioetan izango den gorakada. Iaztik hona, %23ko igoera. Inbertsioen atalean aipatzekoa, udazkenean zehar eginiko "Kale Irekiak" prozesuaren baitan bildutako ekarpenetarako 40.000 euroko diru partida gorde duela Usurbilgo Udalak. "Prozesutik ateratako proposamenak aurkeztu eta herritarrekin adostuko dira lehentasunak", Udaletik iragarri dutenez. Gainerakoan, hirigintza eta zerbitzuen eremuetan hainbat inbertsio egingo dira, hobekuntza lanak nagusiki.

**SARREREN EGOERA**
Zuzeneko zergak:
2.889.200 euro (%26,13)
Zeharkako zergak:
440.000 euro (% 3,98)
Tasak eta bestelako sarrerak:
2.166.325 euro (%19,59)
Transferentzia arruntak:
5.034.712 euro (%45,53)
Ondarezko sarrerak:
50.900 euro (%0,46)
Inbertsio errealak besterenganatzea: 476.327 euro (%4,31)
**Guztira 11.057.464 euro**

**GASTUEN EGOERA**
Pertsonal gastuak:
3.800.000 euro (%34,37)
Ondasun arrunten erosketak:
4.789.886 euro (%43,32)
Finantza gastuak:
20.000 euro (%0,18)
Transferentzia arruntak:
808.873 euro (%7,32)
Inbertsio errealak:
1.219.637 euro (%11,03)
Kapital transferentziak:
84.068 euro (%0,76)
Pasibo finantzarioak:
335.000 euro (%3,03)
**Guztira 11.057.464 euro**

### 2017rako inbertsioak: 1.219.637 euro

**Hirigintzako inbertsioak:**
Agerrazpiko zubia: 130.342 euro.
Kale Irekiak prozesuko inbertsioak: 40.000 euro.
Pikaola bereganatzea: 50.000 euro.
Hilerri berria handitzea: 120.000 euro.
Oiardoko aireztapena: 40.000 euro.
Guztira: 380.342 euro.

**Ingurumeneko inbertsioak:**
Bidegorri sarea: 20.000 euro.
Hondakinen prebentziorako lanak: 20.000 euro.
Efizientzia energetikoa: 30.000 euro.
Guztira: 70.000 euro.

**Zerbitzuetako inbertsioak:**
Etxebeste eta Hirutasuna kalea: 302.000 euro.
Galtzaragainako plaza berritzea %50: 69.020 euro.
Txokoaldeko zubiaren legeztatzea: 33.000 euro.
Zubietako inbertsioak: 70.000 euro.
Alperroburu 3. fasea: 36.500 euro.
Luminariak berritzea, Troia, Orbeldi: 12.000 euro.
Leizekaldeko parkea berritzea: 14.757 euro.
Beste inbertsio batzuk: 165.018 euro.
Guztira: 702.295 euro.

**Bestelako inbertsioak:**
Guztira: 67.000 euro.

**Aurrekontutik kanpoko inbertsioak:**
Zumarte Musika Eskola.

**Brigadak egingo dituen lan nagusiak:**
Aginagako espaloia konpontzea eta Kalezarko eskilara.









# “Zubietako energia planak mugarri handi bat jarriko du”

## XABIER ESTEBAN ALONSO, ENERGIAKO ETA INGURUMENEKO AHOLKULARI ESPEZIALISTA

Etorkizunerako energia plana garatzen hasiak dira Zubietako Kaxkoan, Herri Batzarra, Lanbide Eskola eta herritarrekin elkarlanean. Asteotan, kontsumoaren gaineko diagnosia bideratzen ari dira hainbat bizilagunen etxeetara egingo dituzten bisiten bidez. Proiektu honetan aholkulari gisa lanean ari den Xabier Estebanek dakartza xehetasun gehiago lerrootan. Ondo ezagutzen du Zubieta, Lanbide Eskolako irakasle izana da. Esperientzia zabala du eremu honetan, xabieresteban.com blogean ikusi ahalko duzuenez.



Xabier Esteban Alonsok ondo ezagutzen du Zubieta, Lanbide Eskolako irakasle izana da. Eta esperientzia zabala du eremu honetan.

**Aztertzeko hautatu duzuen eremua, Zubietako Kaxkoa, mugatua da baina joko handia emango duena.**

**Xabier Esteban Alonso:** Herri batzarrak oso ondo jokatu du eta proiektua Kaxkora mugatu du. Eremua zabaltzeak proiektua zailduko zuen. Zentzuzko muga bat jarri dela uste dut, herritarrek ezagutzen duten eremua baita. Ez ditu jarduera ekonomiko asko baina dituenak oso bereziak dira, nagusiki ostalaritzari loturikoak. Horiek kontsumo energetiko potentea izaten dute eta baita ikastetxeek ere. Tartean, Lanbide Eskola dugu, nazio mailan energian oso ikastetxe aurreratua eta eskola txiki bat. Garrantzitsua da guretzako ere zerrategi bat dugula eta biomasari lotu nahi diogula horren azterketa.

> XABIER ESTEBAN ALONSO
>
> *“Zubietako herriari aurkeztu genion plana, baita Usurbilgo eta Donostiako udalei. Bi udalek bat egin dute proiektuarekin”*

**Energia plan honek zer harrera izan du erakundeen aldetik?**

Herriari aurkeztu genion plana, baita Usurbilgo eta Donostiako udalei. Bi udalek bat egin dute proiektuarekin. Biek gainera Alkateen Ituna sinatua dute.

**Zertan datza itun horrek?**

Europar Batasunatik bultzatu eta energia jasangarria sustatzeko alkateek sinaturiko akordioa da, eremu publiko nahiz pribatuan gai honi buruzko sentsibilizazioa, energia aurrezpena eta eraginkortasunari loturiko udal politikak bultzatzeko. Zubietaren kasua oso aipagarria izango da, akordio hau sinatua duten Donostia eta Usurbilen artean baitago.

**Energia kontsumoaren gaineko azterketa bideratzen ari zarete orain. Bisitak egingo dituzue bolondres gisara animatu diren Zubietako herritarren Kaxkoko etxeetan. Herritarrok zer modutan prestatu behar dute bisitarako?**

Faktura energetiko guztiak eskura izan ditzatela, bereziki azken urtekoak. Ikerketak irauten duen hilabeteetan fakturak jasotzen badira bikain. Bereziki argiaren igoera dela eta, adierazgarria izango da ikustea zer nolako kontsumoa egin duten prezioak igo direnean. Ideia inkesta bat osatzea da. Eta herritarron ohiturak, etxeko tresneria, instalakuntzak ezagutzeko bisita bat egitea.

## “Informazio askea, profesionala, gertukoa eskainiko diegu”

**Herritarrak izan nahi dituzue bidelagun prozesu honetan.**

Plan hau herritarrei zuzendua dagoenez, ematen ditugun pausoak haiekin txekeatzen joan nahi dugu. Informazio askea, profesionala, gertukoa eskainiko diegu, eta trebatu egingo ditugu. Beraiekin joango gara lantzen energia sorkuntza eta potentzialtasunaren inguruko diagnosiak. Hartara, zubietarrek energiaren inguruko kultura handiagoa badute, horrek etorkizuneko helburuak finkatzea erraztuko du. Eraginkorragoa izango da energia berrien sustapena.

**Egutegi bat finkatu duzue gainera. Urte amaierarako plan hau diseinatua egon liteke?**

Gustatuko litzaiguke energia diagnosia eta energia ekoizteko aukeren gainekoa iraila ingururako bukatzea eta azken hiruhilekoan jada ekintza plana burutzea.

**Etorkizunean Zubietak zer nolako bidea jorratu dezakeen aurreikusterik bai?**

Logikagatik, eraginkortasunak izan behar luke lehen urratsa, ahalik eta energia gutxien kontsumitzea Zubietako Kaxkoan. Eta gero teknologia berriztagarriak ipintzen joatea. Une txarra izan arren, energia elektrikoaren prezioa hainbeste igo delako, era berean une ona da, orain jendeak belarriak irekiak baititu entzuteko.

# "Lankidetza honekin Lanbide Eskola herrira gerturatu nahi dugu"

**NOAUA! Hainbat alternatiba daude baina ezagutza falta dugu.**

**Xabier Esteban Alonso:** Biomasa sustatu daiteke, eguzki indarra, autokontsumoa, subiranotasun energetikoa… Informazio falta nabarmena da. Ikusten badugu urtarrila erditik bukaerara hedabideetan energia elektrikoaren prezioaren igoera azaltzeko aipatu diren arrazoiak, konturatzen zara datu asko manipulatuak daudela edo bestela, ez direla guztiz egiazkoak edo guztiz gezurrak. Hobe da zerbait ez esatea, erdibidean geratzea baino. Azkenean gizarteak ez daki gaur egun zergatik izaten ari den igoera hau. Guk informazio hori ahalik eta modu profesional eta objektiboenean eskaini nahi dugu.



"Energia elektrikoaren prezioaren igoera azaltzeko aipatu diren datu asko manipulatuak daude. Guk informazio hori ahalik eta modu profesional eta objektiboenean eskaini nahi dugu".

**Energia plan hau abiatu aurretik ere, Lanbide Eskolan eta Zubietako hainbat etxeetan energia berriztagarrien eta autohornikuntzaren bidean hainbat urrats eman dituzte. Eremu honetan lanketa sakon bat egiteko aukera bada honenbestez?**

Urteotan Zubieta asko hazi da eta energia kontsumoa ere handitu egin da. Era berean ordea ikusi dugu hainbat herritarrek energia berriztagarrien aldeko apustua egin dutela. Eguzki indar termikoa, fotoboltaikoa, biomasa erabiltzen duten herritarrak badira. Erabiltzaile bezala interesatzen zaigu herritarrok ere beraiek azaltzea euren esperientzia. Eredu dira. Bestalde, herritar elektrikari, iturgin eta horien irizpideak ere gizarteratu nahi ditugu. Lankidetza honekin Lanbide Eskola ere herrira gerturatu nahi dugu.

XABIER ESTEBAN ALONSO

*"Urteotan Zubieta asko hazi da eta energia kontsumoa ere handitu egin da"*

**Energia berriztagarrien sektorean aitzindari da Lanbide Eskola 2000. urteaz geroztik.**

Urte hartan hasi zen energia berriztagarrien eraikin berri bat diseinatzen eta eraikitzen. 2003an inauguratu zen. Eraginkortasun energetikoaren inguruan lan handia egin zen. Honez gain, hidrogenoa eta eguzki energia fotoboltaikoa erabiliz energia elektrikoa ekoiztu da. Foru Aldundiak bide horretan lagundu gaitu hasieratik. Azken urteotan sare adimenduen aldeko apustua egin da. Eskolan bada sare txiki bat. Eta jada sartu dira eraikin sustengarrietan, zero energiadun eraikinetan. Eraikinok ekoizten dute behar duten energia, bere teknologien bidez. Orain, Zubietako energia plan honek mugarri handi bat jarriko du.

## Zubietako energia planaren faseak

**Lehen fasea, energia datuen bilketa:**

■ 1.- 42 etxebizitzetan inkesta energetikoa burutu (ordubete inguru).
■ 2.- Jarduera ekonomikoetan, energia datu bilketa eta azterketa.

**Bigarren fasea, energia sorkuntzaren azterketa:**

■ 1.- Errekurtso naturalak: eguzkia, ura, haizea.
■ 2.- Egurra zerrategian.

## Epeak

■ **Otsaila-maiatza:**
Energia kontsumoaren gaineko azterketa.

■ **Maiatza-urria:**
Energia sorkuntzaren gaineko azterketa.

■ **Azaroa-abendua:**
Ekintza plana.

## Azterketa bideratzen ari direnak:

Lanbide Eskola, Zubietako Herri Batzarrarekin elkarlanean.



# "Nola edo ahala, energia berriztagarrien alde egin behar dugu"

**NOAUA! Nola interpretatu behar dugu argindarraren fakturan izan den gorakada?**

**Xabier Esteban Alonso:** Arrazoi objektibo batzuk daude. Kontsumoa asko igo da, fakturaren prezioa murrizten duen teknologia berriztagarrien partaidetza murriztu da, erregai fosilen prezioek gora egin dute artifizialki. Dirudienez ez da iruzurrik egon, baina azkenean, energiaren ekoizpenean enpresa pribatuak daude eta errentagarritasuna nahi dute. Baina badira arrazoi subjektibo asko; tartean, energiaren prezioa enpresa pribatu kopuru txiki batek markatzen duela. Lehiakortasun txikia dago, ehuneko ehun esku pribatuetan dago. Arazo bat dugu. Beraz, nola edo ahala, energia berriztagarrien alde egin behar dugu.

**Energia berriztagarriak enpresa pribatuokiko dugun mendekotasunarekin hausteko bide ere izan daitezke beraz.**

Zer suposatzen du energia berriztagarria erabiltzeak? Zuk kanpotik erosketa gutxiago egin behar duzu. Edozeini logikoa iruditzen zaio. Zer egin beharko lukeen Espainiako Gobernuak? Benetan energia berriztagarrien alde egitea. Onartu baitu ministroak, energia berriztagarri gutxiago izategatik, energia elektrikoaren prezioa igo dela. Beraz esan nahi duena da, energia berriztagarri gehiago, prezio murritzagoa.

**Panorama honen aurrean, zer aholkatuko zeniguke?**

Hasteko, ahal den heinean, gaueko tarifa delakoa kontratatzea, aurreztu daiteke. Ahalegin hori egin beharko genuke denok, prezioak ezingo dituzte hainbeste igo eskaera gutxituko baita. Pentsatzen dut kontsumitzaileok ahal den heinean energia berdea kontratatu behar dugula.

# Jasangarritasunaren aldeko udalerrien sarean segiko du Usurbilek

10 urte igaro dira Usurbilgo Udala, “Udalsarea 21”, jasangarritasunerako udalerrien euskal sarean dagoenetik. Akordioa berritzea tokatzen zen orain. Inongo zalantza izpirik izan gabe, sare honetan jarraitzeko konpromiso irmoa du Udalak, urtarrilaren 31ko osoko bilkuran argi geratu zen moduan. Aho bateko babesa eman zioten udal talde guztiek, akordio honetara atxikitzeko egin zuten bozketan.


Udal Sarea 21 delakoan jarraitzeko konpromisoa berretsi du Usurbilgo Udalak.

## Nazioartean erreferentzia bihurtzeko nahia

2016ko apirilaren 27an EAEko tokiko jasangarritasunerako konpromisoa berritzeko akordioa aurkeztu zen. Akordio horretara batu da orain Usurbilgo Udala. Horren baitan, Udalak bere gain hartuko dituen erantzukizunen artean daude, Tokiko Agenda ekimenak burutzen jarraitzea, garapen jasangarria sustatzea, informazioa eskaini edota esperientzia interesgarriak partekatzea.

AHO BATEZ ONARTUA

***“Udalak bere gain hartuko dituen erantzukizunak: Tokiko Agenda ekimenak burutzen jarraitzea, garapen jasangarria sustatzea, informazioa eskaini edota esperientzia interesgarriak partekatzea”***

## Sarea handitzeko asmoa

Xedea, jasangarritasunarekiko konpromisoa berritzeaz gain, udalen sare hau handitzea da, “kidetutako administrazioen jarduera-esparruari eta jarduera-kopuruari dagokionez”.

2020ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo den akordio berriak gogorarazten duenez, “sareak jardunean egindako hamalu urteetan, Tokiko Agenda 21 EAEko tokiko jasangarritasuneko politikak kudeatzeko tresna nagusi bihurtu da”.

Jauzi kualitatiboa eman eta nazioartean erreferentzia bihurtzeko apustua egin nahi dute. Honez gain, araudian ere zenbait aldaketa txertatzea proposatzen dute.

# Hirigintza eta zerbitzuei loturiko erabaki bana hartu du udalbatzak

Batetik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntuala behin betiko onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz urtarrilaren 31ko osoko ohiko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJko udal ordezkariak abstenitu ziren. Udal gobernu taldetik adierazi zutenez, azaroaren 29an hasieraz onartu ostean, ez da alegaziorik aurkeztu horretarako finkatua zegoen epean.

Behin betiko onarturiko erabaki honekin, hiru aldaketa dira txertatuko ditu Udalak aipatu testu bateginean: Aginagako erriberako oinezkoen bidea domeinu publikora pasatzea; Zubietako hondakin uren ponpaleku estazioaren obra egiteko arau aldaketa; eta lurzoru hiritar ezinean, eraikuntzen artean egon behar duen distantziei loturiko Arau Subsidiarioen 53. eta 54. puntuen egokitzapena.

### Iartzako herri bidea

Bestalde, Iartza eremuan (A-107) kokaturiko herri bidearen jaregite espedientea behin betiko onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz urtarrilaren 31ko osoko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen. Onarturiko erabakiaren helburua, “exekuzio unitate horretan kokatutako herri bidearen trazatu berriaren aldaketa gauzatzea da”. Azaroaren 29an onartu zen hasieraz, gerora ez da alegaziorik aurkeztu eta aurreko asteko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zitzaion.

# Euskal Inauteriek Zubieta eta Lasarte-Oria senidetu dituzte



Lasartearrekin batera, zubietarrek Euskal Inauteriak ospatu zituzten aurreko larunbatean.

Inauterien asteburua hemen da jada, baina aurre hartu dienik bada inguruotan. Galdetu bestela zubietarrei. Lasartearrekin batera Euskal Inauteriak ospatu zituzten aurreko larunbatean. Karroza batekin, trikitilarien erritmora dantzan osatu zuten Zubietatik Lasarterako bidea. Hipodromoko zubian, elkarri eskua emanez senidetze ituna berretsi zuten bi herriek, elkarri eskaini zizkioten dantza saioen artean. Lagun arteko jai koloretsua, Lasarteko Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuten zubietarrekin elkarlanean. Asteburuan izango ditugun ospakizunetarako ederki girotu gaituzte.









Hipodromoko zubian, elkarri eskua emanez senidetze ituna berretsi zuten Zubietak eta Lasarte-Oriak.

## Otsailak 24 ostirala Mozorro festa eskoletan

■ 10:30 Udarregi Ikastola–koen kalejira.

■ 11:15 "Zaborra ere gurekin dantzan" ikuskizuna Oiardo Kiroldegian. Oharra: Oiardon izango den emanaldirako sarrera bana emango zaio ikasleen familia bakoitzari. Kiroldegiko ikuskizunaren aurretik, urtero moduan, "Martxa" dantzatuz Kaxko inguruetan barrena desfilatuko dute LH-ko ikasleek.

■ 15:00 Aginagako Eskola Txikikoen emanaldia Aginagako frontoian. "Euskal Mitologia" ardatz duten euskal dantzak eskainiko dizkiete gurasoei.

■ 15:30ak aldera, Inauteri Festa eta kalejira Zubietako Eskolan.

■ 19:30-20:30 Orbeldi Dantza Taldekoen kalejira Oiardo Kiroldegitik. Amaiera ekitaldia, 20:30ean Mikel Laboa plazan.

## Otsailak 25 larunbata Inauteri Festa Kaxkoan

■ 12:00-12:30 Burrunbazale txaranga frontoian.

■ 12:30 Kantu Taldekoen jira abiatzeko 3 kantu abestuko dituzte Burrunbazale txarangakoekin Mikel Laboa plazan.

■ Ondoren, kantu-jira kalez kale eta Burrunbazale txarangakoekin kalejira. Bakoitzak bere ibilbidea osatuko du.

■ 16:00 Karaoke festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!

■ 17:00 Lauburu, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako erraldoi txiki, handi eta buruhandien kalejira dultzaineroekin, udaletxetik abiatuta.

■ 17:00 Burrunbazale txaranga frontoitik abiatuta.

■ 19:00-21:00/23:00-01:30 Dj Kankhar frontoian.

# Jai Batzordea eraldatzeko abiapuntua

Otsailaren 13an egindako lehen bilera jendetsuarekin, martxan dira Usurbilgo jaien antolaketa lanak. Abiapuntu ezberdina izan dute ordea datozen festen prestaketek; Jai Batzordeak hutsetik hastea erabaki baitu.

Modu honetan, pixkanaka jai eredua irauli nahi da; erantzunkizunak Udala eta herritarren artean partekatu izan dituzten eredutik, herritarrak antolatzaile nagusi bihurtuko dituen eredu baterantzko bidea jorratu nahi dute. Horretarako, jaien egiteko moduan, edukian, eta funtzionamendu oinarrietan eragin nahi dute. Horiek landu eta adostu asmo dituzte.


**Aurten, ekainaren 29an hasi eta uztailaren 2an amaituko dira Santixabel jaiak.**

## Ekarpen berriak egiteko aukera

Gaion inguruan hausnartu eta iazko ekintzak aztertzetik abiatuta, datozen festetarako moldaketak, berrikuntzak proposatzera deia egin die Jai Batzordeak festen antolakuntzan parte hartu asmo duten norbanako nahiz eragileei.

*JAI BATZORDEA*

***Hurrengo bilera martxoaren 6an egingo da, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean***

Ekarpen guztion bilketa, martxoaren 6rako, 18:00etan Potxoenean deitu duten hurrengo bileran egingo dute.

## Ekainaren 30ekoa jai eguna izango da

Azken bileran, Usurbilgo festen egutegia finkatu zuten; 2017koak ekainaren 29tik uztailaren 2ra ospatuko dira. Gogoan izan, Santixabel Eguna igandez egokituko dela aurtengoan. Eta honenbestez, jai eguna ekainaren 30era aurreratu dutela. Ekaineko azken ostiral hori beraz, jai eguna izango da Usurbilen.

## Santixabel jaiak 2017

Ekainaren 29tik uztailaren 2ra ospatuko dira.

# “Hemen da Uztaberria”

Errigoraren kanpaina berria abiatzear da. Iaz arte, bereizita egiten zituzten oliba olioa eta kontserbei loturiko udaberri parteko elkartasun kanpainak bateratu dituzte aurtengoan.



**Errigorako produktu guztiak martxoaren 1etik 14ra eskatu ahal izango dira.**

Produktu guztiok martxoaren 1etik 14ra eskatu ahalko dira. NOAUA!ko egoitzan, nahiz gero, garai ezberdinetan jasoko diren; oliba olioa martxoaren 30ean eta 31n, eta kontserbak (pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua eta kremak) ekainaren 1ean eta 2an.

Eskaerak orain egin arren, ordainketak produktuak jasotzerakoan egin beharko dira.

**Xehetasun gehiago: errigora.eus**

Xehetasun gehiago, datorren astekarian. Informazio gehiagorako: errigora.eus

## Udal dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik da

Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdian parte hartzeko epea martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. Udalak guztira, 168.000 euro bideratuko ditu kultura, kirola, gizartegintza, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen edota igogailuen instalakuntza proiektuak sustatzera.

Igogailuen instalakuntzak ezartzen laguntzeko kasuan, diru-eskaera egiteko epea hiru hilabetekoa izango da.

■ Informazio gehiago, Udaletxetxean.
943 371 951
usurbil.eus


NOAUA! aldizkariaren banaketa
Ordezkoen lan-poltsa osatzeko deialdia
Gaur egungo banatzaileren batek bere lana utziko balu, ordezkoa beharko genuke. Horretarako osatu nahi dugu lan-poltsa. Curriculuma bidali elkartea@noaua.eus-era edota ekarri Noaua!ren egoitzara: Bordaberri 3, Usurbil
noaua


Noaua!k
Udajolas-erako arduraduna eta begiraleak behar ditu, uztailean lan egiteko.
PROFILA:
- 2 urteko esperientzia
- Zuzendari titulua izatea
- Begirale titulua izatea
- EGA edo baliokidea den agiria izatea
- Sexu delitua egiteagatiko aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute
Interesatuak:
Curriculumak martxoaren 31 baino lehen ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkartea@noaua.eus
noaua


kapitain planet
INAUTERIAK
2017/02/25- USURBIL
INGURUMENA
Otsailak 24, ostirala
Orbeldi Usurbilgo dantza taldearen emanaldia herrian zehar
19:30: Kiroldegitik aterata kalejira
20:30: Mikel Laboa plazan azken saioa
Otsailak 25, larunbata, INAUTERI FESTA
12:00: Frontoitik abiatuta, BURRUNBAZALE txarangarekin kalejira
12:30: Mikel Laboa plazatik abiatuta, kantu-jira
16:00: Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozorrotuta etorri!!!
17:00: Udaletxetik BURRUNBAZALE txarangarekin eta herriko erraldoi eta buruhandiekin kalejira
19:00-21:00 eta 23:00-01:30: KANKHAR musika jartzailea frontoian.
noaua
Gipuzkoako Foru Aldundia




Klik! batean

# Bihotz bat eskuetan

**Honakoan, hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea ez dute Mikel Laboa plazan egingo. Argazkian ageri den muralaren ondoan baizik (Zubiaurreneako errotondan). "Muraleko ideia irudikatuz, taldeko argazkia egingo dugu eskuetan bihotz gorriak ditugula. Bide batez, Mari Karmen Anzari, Olatz Lasagabasterren amari gure animoak helaraziko dizkiogu berriro", Usurbilen Nahi Ditugu elkartetik aditzera eman dutenez. Valentziako erietxean segitzen du Anzak, urtarrilaren 21ean bertan urgentziaz ingresatu behar izan zutenetik. Hoberantz egin duen arren, oraindik Valentziako erietxean jarraitu beharko du bolada batean.**

Argazkia: Ion Markel



# Herri kontsultaren hurrengo urratsa, galdera hautatzea

Maiatzaren 7a gero eta gertuago dago. Herritzartu taldekoek lanean segitzen dute eta dagoeneko hasi dira herri kontsultako galdera definitzen. Horren ardura hartu duen lantaldeak galdera bakarra planteatu nahi du kontsulta egunean, baina galdera hori zein izan daitekeen erabakitzeko garaian, ahalik eta herritar gehienen iritzia jaso eta entzun nahi du.



Galdera egokiena zein izan daitekeen erabakitzeko garaian, ahalik eta herritar gehienen iritzia jaso nahi dute.

## Hiru galdera posible aurreikusi dira

Horretarako, egokiak izan litezkeen hiru galdera posible aurreikusi dira, "aho batez, horien artean behin-betikoa izango dena guztion artean aukeratu dezagun", Herritzartu plataformatik aditzera eman digutenez. "Animatu nahi ditugu herritarrak euren iritzia eman dezaten hiru galdera posible horien artean egokiena zein iruditzen zaien jakinaraziz".

Azpiko zutabean dituzue aho batez hautatu diren hiru galdera posibleak.

# "Zein da zuretzat galdera egokiena?"

Aurreko astean amaitu zen galderak proposatzeko epea. Iradokizun guztiak batu ondoren, hauxe da Herritzartuk egin duen aukeraketa. Galdera adosteko ardura hartu duen lan-taldeak hiru galdera hauek hautatu ditu:

- **Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?**
- **Ados al zaude euskal estatu independentea sortu, garatu eta babestearekin?**
- **Nahi al duzu euskal estatu libre bateko herritarra izan?**

Herritarrek beren iritzia emateko garaia da orain. "Animatu eta parte hartu", Herritzartu elkarteak dei hori egin die usurbildarrei.


Martxoaren 12ra bitarte zabaldu dute gustuko galdera hautatzeko epea.

## Partehartzeko bideak:

Martxoaren 12ra bitartean, jendearen iritzia batzeko bide ezberdinak ireki dira:

- Emailez, ondoko helbidera e-posta elektroniko bat igorriz: usurbilgureeskudago@gmail.com
- Whatsapp bidez: 634445512.
- Gure Esku Dago Usurbilen Facebook eta Twitter sareen bitartez.
- Kalean jarriko den mahaira hurbilduz: martxoaren 3, 4 eta 5an ipiniko dute.

## Ostegunean, batzarra

Ostegun honetan, otsailak 23, Herritzatu plataformak batzar informatiboa antolatu du. Potxoenean batuko dira, arratsaldeko 19:30ean hasiko da bilkura.

# Zubietan herri galdeketa propioa egingo dute

Maiatzaren 7an zubietarrek galdeketa propioa antolatzea erabaki dute. "Zubietak bere herri izaera baduela garbi daukagu. Behingoz, herri gisa agerraldi publiko eta aldarrikatzailea egitera goaz: zubietarrok gure galdeketa propioa antolatuko dugu", iragarri dute. Galdeketa propioa eginez, "Euskal herritarrok nazio garen bezalaxe, zubietarrok ere herri bat garela aldarrikatuko dugu; eta Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzea euskal herritarroi dagokigun heinean, zubietarrok gure aletxo propioa jarriko dugu".



Festetan egin ohi duten bezala, argazki herrikoia aterako dute martxoaren 4an, eguerdiko 12:00etan Errebote plazan.

Martxoaren 4an eguerdiko 12:00etan Errebote plazan, jendaurreko ekitaldi bidez aurkeztuko dituzte galdeketaren nondik norakoak; galdeketaren izena, logoa eta manifestua. Argazki herrikoia ere aterako dute. Galdeketa antolatzen lagundu nahi duenarentzat, "ateak zabalik daude" gogorarazten dute. Asteartetan bildu ohi dira 19:00etan Kaxkapen.

**ZUBIETAN**

***"Zubietarrok gure aletxo propioa jarriko dugu". Antolaketan lagundu nahi duenak jakin dezala asteartetan bildu ohi direla, 19:00etan Kaxkapen***

## Lan taldeetan parte hartzeko deia

Herritzarturen baitan, lan-talde ezberdinak jarri dira martxan. "Eta herritar oro gonbidatua dago parte hartzera", Herritzartu elkartetik aditzera eman digutenez.

- **Galdera adosteko taldea:** asteartea, 19:00etan Potxoenean.
- **Komunikazio taldea:** asteartea, 20:00etan Potxoenean.
- **Ekintzak antolatzeko taldea:** asteazkena, 18:30ean Potxoenean.
- **Finantziazioa:** asteazkena, 18:30ean Potxoenean.




# Musean eta tokan Aginagan, galdeketaren alde

Herritzartuk plataformak antolatuta, mus eta toka txapelketak ospatu ziren larunbatean Aginagako Eliza Zaharrean. Maiatzaren 7ko galdeketa babestea helburu zuen ekimenak, babes zabala jaso zuen.

Gogoan izan, galdera adosteko prozesu betean dago Usurbil. Martxoaren 12ra arte dago galdera hautatzeko epea zabalik.

Eta okerrik ez bada, martxoaren 19an emango dute herri kontsultan bozkatu beharko den galderaren berri.

**Informazio gehiagorako:**
634 44 55 12
usurbilgureeskudago@gmail.com








Aurreko asteburuan, Herritzarturen aldeko mus txapelketa jokatu zen Aginagako Eliza Zaharrean.

# Manifestazio historikoa




**Elkarrizketaren eta adostasunaren aldeko batasuna irudikatu zuten milaka gipuzkoarrek.**

Herrialde mailan, "Gipuzkoan inoiz egin den manifestaziorik jendetsuena izan da gaurkoa", zioen GuraSOSek, otsailaren 19an Donostian antolaturiko mobilizazioaren ostean. 10.000 gipuzkoar baino gehiagok hondakinen kudeaketa adostasunez eta elkarrizketaren bidez konpontzea eskatu zuten, dagoen legedia errespetatuz, eta herritarrak aintzakotzat hartuz. Aldarriok isla argia izan zuten, eremu ezberdinetako

*MILAKA LAGUN DONOSTIAN*

***10.000 gipuzkoar baino gehiagok hondakinen kudeaketa adostasunez eta elkarrizketaren bidez konpontzea eskatu zuten***

aurpegi ezagunek, ikastetxeetako ordezkariek, OEIT-k, sindikatuetako ordezkariek edota guraso taldeek garraiatu zituzten pankartetan.

Artzai Onaren Katedral parean abiaturiko mobilizazioa Bulebarrean amaitu zen. GuraSOSek udaletxe ondoan jarritako oholtza gainetik jende ilara amaigabea ikus zitekeen. Antolatzaileek manifestua irakurri ostean, Ixak Arruti usurbildarraren laguntzaz "Txoriak txori" abestia kantatu zuten manifestariek, eskuak altxa eta elkarri emanda. Elkarrizketaren eta adostasunaren aldeko batasuna irudikatu zuten milaka gipuzkoarrek.

Irudi bilduma: noaua.eus atariko Argazkitegian.

## Auzitegitik datozen albisteak argitzen

EAEko Auzitegi Nagusiak GuraSOSek ingurumen baimen bateratuaren aurkako errekurtsoa atzera bota zuela zabaldu zen aste hasieran. Baina ez da hala. Guraso taldetik argitu digutenez, otsailaren 20an "atzera botatakoa ez da ingurumen baimen bateratuaren aurkako errekurtsoa, baizik eta, auzi hau erabaki bitartean, lizitazioaren behin behineko paralizazioa bideratzeko egin zen eskaera bat da atzera bota dutena. Eta autoak (ez da epaia kontuz, auto bat baizik) dioena da ez duela suspentsio kautelarrik agindukoingurumen baimen bateratuaren aurkako errekurtsoaren auzia ebatzi bitartean".

## FCC-ren errekurtsoa

Bestetik, FCC erraustegiaren esleipenaren aurkako errekurtsoa aurkeztekoa zen asteartean. Hau argitu bitarte, Diputazioak ezingo du erraustegia eraikitzeko lanekin hasi.











**Ixak Arruti usurbildarraren laguntzaz "Txoriak txori" abestia kantatu zuten manifestariek, eskuak altxa eta elkarri emanda.**

# Jasotako babesa eskertu du Mari Karmen Anzak

Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik berri eman dutenez, pixkanaka bada ere hoberantz doa Mari Karmen Anza, Olatz Lasagabaster presoaren ama. "Bere kabuz arnasteko gaitasuna berreskuratzen ari da", nabarmendu dute. Halere gogorarazten dutenez, hoberantz egin arren, Mari Karmen Anzak "oraindik ZIUn jarraitzen du". Valentziako ospitalean, gugandik 600 kilometrora. Valentziako ospitaletik hain zuzen, Mari Karmenek bere esker ona helarazi nahi izan die usurbildarrei, "erakutsitako elkartasunagatik".

Bitartean, Picassent espetxean aldaketarik ez. Gogoan izan, Xua ezagutzeko baimena eskatua izan arren, 21 egun beranduago eraman zutela Patxi Uranga Alacanteko espetxetik Valentziako Picassentera, alaba jaioberria ezagutzera. "Patxi momentuz ez dute lekualdatu eta Picassenten segitzen du", aditzera eman dute Usurbilen Nahi Ditugu elkartetik.




**Otsailaren 13an Torturaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea egin zen frontoian.**

HOBERUNTZ EGIN DU

***"Bere kabuz arnasteko gaitasuna berreskuratzen ari da". Hala ere, ZIUn jarraitzen du oraindik***

**Ostiraleko elkarretaratzea, mural berrian**

Ostiral honetarako, otsailaren 24rako deitua du Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea. Ohi bezala iluntzeko 20:00etan izango da, baina ez betiko moduan Mikel Laboa plazan, Zubiaurreneako errotondan baizik. Biribilgune honen parean, euskal presoak euskal herriratzeko aldarria biltzen duen mural berria landu baitu Ugarri taldeak, Usurbilen Nahi Ditugu bilgunearen enkarguz.

**Torturaren aurka**

Otsailaren 13an Torturaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea deitu zuten Usurbilgo Sortuk eta Ernaik frontoian. "Ez ahaztu, herri honetan torturatu egin da eta torturatzen jarraitzen da. Eta ezin dugu onartu", adierazi zuten mobilizazio amaieran. Euskal Memoria Fundazioak argitaratu dituen azken datuen arabera, guztira azken 40 urteotako 7.582 kasuetatik 5.657 tortura kasu egiaztatu ditu.

# Proiektu alternatiboak lantzera

"Eraikuntza lanetan ari gara" dinamika eta herriko gazte eragileekin osatutako diagnosia aurkeztu zuen Usurbilgo Ernaik azaroan. Abenduan proiektu alternatiboak lantzeko Barañaingo Gazteraiki Topaketetan parte hartu zuten zenbait gaztek. Urrats berri bat eman zuten o–tsailaren 17an. Aginaga, Usurbil eta Zubietako gazteek deituta, proiektu alternatibook lantzen hasteko Potxoenean batzarra egin zuten.



**Proiektu alternatiboak lantzen hasteko batzarra egin zuten aurreko ostiralean Potxoenean.**

## Hilerri zaharra hustutzeko, hiru hilabeteko epea

Azken hamabost urteotan ez da lurperatzerik egin hilerri zaharrean. Hilerri berrian egiten dira orain ehorzketak. Gauzak horrela, hilerri zaharra azaroaren 30ean itxiko du Udalak. Hilerri zaharrean dauden gorpuzkinak bertatik atera eta hilerri berrira eramango dira.

**Eskaerak Udaletxean egin behar dira**

Familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu nahi dituztenen kasuan, hiru hilabeteko epea izango dute. Gainerakoak, aipatu bezala, Udalaren gain geldituko dira.

Udaleko zerga-bilketako leihatilean izango da zuzeneko informazioa jasotzeko aukera, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara. Izen ematea berriz, udal erregistroan egin beharko dute, horretarako eskuragarri izango den inprimakiaren bitartez.

## Bihurri ludotekako kuota ordaintzeko garaia da

Otsailaren 28ra arte dago epea. Bazkide berriek 30 euro pagatu behar dituzte. Jada bazkide direnek aldiz 10 euro, ondoko kontu zenbaki honetan: Kutxabank ES76-2095-5069-06-1063903578

"Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue eta iradokizunak bertan egin", ludotekatik aditzera eman dutenez. Emaila hau da: bihurriludoteka@gmail.com

Beste ohar bat ere luzatu dute Bihurri ludotekatik. Jada erabiltzeari utzi dioten gurasoei zuzendua: "Ludoteka utzi egingo duzuenok, mesedez, itzuli giltza".

# Ezinegona Landaberrin, 500 metrotara eraiki nahi dieten erraustegiagatik

Oso kezkatuta agertu da Lasarte-Oriako Garaikoetxea-Landaberri ikastolako irakasle talde bat, 500 metrotara erraustegia eraiki nahi baitiete. “Nolako eragin eta zein ondorio izan ditzakeen gure osasunaren kalteetan aintzat hartuz, kezka ezinegona bihurtu da”, adierazi zuten hilaren 17an, Donostiako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren atarian egin zuten agerraldian.

2016ko maiatzean ikastolako Organo Gorenak eskutitz bidez Eusko Jaurlaritzak Donostian duen Hezkuntza Delegaritzari haien kezka adierazi eta ia urtebete igaro den honetan, erantzunik ez dutela jaso diote. “Erantzun argia eskatzen dugu. Hori jaso ezean, publikoki adierazten jarraituko dugu gure kezka”, iragarri zuten.



Duela urtebete, euren kezka azaldu zuten gutun bidez Hezkuntza Sailean. Oraindik ez dute erantzunik jaso. Argazkia: Garaikoetxea-Landaberri ikastolako irakasle taldea.

**Oso kezkatuak, adituen txostenekin**

Hainbat adituk, erraustegiak osasunerako dakartzan arriskuez ohartaraziz eginiko txostenekiko kezka adierazi zuten. “Nork ziurtatzen du gure haur ikasleen osasuna ez dela kalteturik izango hemendik ez oso epe luzera?”, galdetzen dute. Onartezintzat jotzen dute erraustegia interes orokorreko proiektu izendatzea. Erraustegi proiektua ez dela bateragarria ezta kongruentea diote, ikastetxea ingurumen jasangarriaren alde sustatzen ari den egitasmoekin.

# Ingeniaritza Eskolakoak Lanbide Eskolan izan dira bisitan

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Irakasleen Prestakuntza masterreko ikasle talde bat Usurbilgo Lanbide Eskolan izan da. “Lanbide Eskolak erabiltzen dituen metodologia berritzaileak eta dauzkan instalazio eta baliabide anitzak ezagutu dituzte. Batek baino gehiagok, bere Masterraren atal praktikoa Usurbilgo Lanbide Eskolan garatzea gustatuko litzaiokeela adierazi du, bertan azaldutakoa guztiz aberasgarria izan baita”.


Irakasleen Prestakuntza masterreko ikasle talde bat hurbildu da aste honetan Lanbide Eskolara.







# Martxoaren 12an Arantza-Beintza irteera



Andatza taldekoen irteerara animatzen direnek Beintzako Orbela aterpean bazkalduko dute.

Martxoaren 12rako antolatu du Andatza M.K.T.-k hurrengo txangoa, Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko hirugarren etapa. 22 kilometroko irteeran, eta ondoren, Beintzako Orbela aterpean egingo duten bazkarian parte hartzeko izen ematea zabalik egongo da martxoaren 8ra arte. Gogoan izan plaza kopurua mugatua izango dela.

### Bidasoako kontrabandistak III Arantza-Beintza

■ Noiz: Martxoaren 12an igandea.
■ Irteera nondik: Oiardo udal kiroldegitik.
■ Ordua: goizeko 7:30ean.
■ Garraioa: autobusez.
■ Ibilbidea: 22 km.

*MARTXOAREN 12AN*

***"Martxoaren 12an egingo da irteera, baina aldez aurretik eman behar da izena, martxoaren 8a baino lehen"***

■ Non eman izena: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontuan:
Rural kutxa:
3008 0259 1630 0543 0321
Kutxabank:
2095 5069 0710 6848 9805

**Izen-ematea:**
■ Azkeneko eguna izena emateko martxoaren 8a.
■ Izena ematerakoan ordaindu behar da: 25 euro (autobusa eta bazkaria).
■ Plaza mugatuak.
■ Bazkaria Beintzako Orbela aterpean izango da.

**Oharra:**
Andatza Mendizaleen Kirol Klubak antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean.

**Info gehiago:**
www.andatza.com

### Futbol partidak Haraneko zelaian

**Otsailak 25 larunbata**
■ 10:00 Infantil neskak: Usurbil F.T. B-Oiartzun KE B
■ 16:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Elgoibar C.D.

### Eskubaloi partidak Oiardo Kiroldegian

**Otsailak 25 larunbata**
■ 09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5C-Urnieta 5B
■ 10:30 Infantil neskak: Udarregi B Usurbil-Ordizia
■ 19:30 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko maila: Usurbil K.E.-San Adrian



### 2017ko egutegia

■ Martxoak 12, "Bidasoako Kontrabandistak 3": Arantza-Beintza.
■ Apirilak 9, "Bidasoako Kontrabandistak 4": Beintza-Ziga.
■ Maiatzak 14, "Bidasoako Kontrabandistak 5": Ziga-Erratzu.
■ Ekainak 11, "Bidasoako Kontrabandistak 6": Erratzu-Etxalar.
■ Uztailak 9, "Bidasoako Kontrabandistak 7": Etxalar-Biriatu.
■ Irailak 9-10, Posets 3.375 m.
■ Urriak 8: Anboto.
■ Azaroak 12: Elgeako zerra.
■ Azaroak 23, 24, 25: Mendi Astea.
■ Abenduak 17: Hendaia-Ibardin.

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK TOSTAK
MENU BEREZIAK
ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

LUNA PULIDA CRISTANOLA
ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

## ETXEBIZITZA

### Salgai

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. Eguzkitsua, berrituta. Informazio gehiago: 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

### Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta sukaldea. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Bi solairuko garaje bat salgai edo alokairuan Alperro-Buru 8an. 33 metro² lehen solairuak. 12 metro² solairu arteak. Argitsua. Sarrera egokia. 635007605.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934



**Zorionak Ekai!** Etxeko txikiak 5 urte betetzen ditu. Zorionak guztion partez eta muxu potoloak, Ekai!



**Zorionak Markel!** Familia guztiaren partez! Muxu handi bat.



**Zorionak Julene!** Dena prestatuta amonak egindako bizkotxo goxo eta erraldoia jateko? Oso ondo pasa zure eguna, gure txapelduna zara!

## Heriotzak



**Joxe Mari Borda Torregaray**
68 urterekin hil zen, otsailaren 15ean Usurbilen.



**Isaías Lerones Mayordomo**
69 urterekin hil zen, otsailaren 15ean Usurbilen

**OHARRA:** 2017ko martxoaren 3an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: otsailak 27 astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

**BESTELAKOAK**

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituena. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Kutxabank | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Otsailak 23 - martxoak 05

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 23 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 24 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 25 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Igandea** | 26 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Astelehena** | 27 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 28 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Asteazkena** | 01 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Osteguna** | 02 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 03 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Larunbata** | 04 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 05 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda otsaila

## 23 osteguna

- **Herritzarturen batzar informatiboa,** 19:30ean Potxoenean.

## 24 ostirala

- **Inauteriak: ikastetxeetako saioak** (ikus 9. or).
- **Orbeldi Dantza Taldearen kalejira** 19:30ean Kiroldegitik abiatuta. 20:30ean azken saioa, Mikel Laboa plazan.
- **Elkarretaratzea** Zubiarreneko muralean. 20:00.
- **Antzerki saioa Sutegin,** 22:30ean.

## 25 larunbata

- **Inauteri Festa: "Ingurumena"** Egun osoan (ikus 9. or).

# Ostiral honetan, 'Landaberri mende erdi' antzezlana Sutegin

Landaberri Ikastolak 50 urte bete zituen iaz. Udazken partean hainbat ekitaldi antolatu zituzten Lasarte-Orian. Tartean, antzezlan bat ere sortu eta plazaratu zuten: "Landaberri mende erdi" izenekoa. Ostiral honetan, Sutegin ikusi ahal izango dugu.

Gaueko 22:30ean hasiko da antzezlana. Sarrerak doakoa da, baina aurreko astean aditzera eman genuen bezala, gonbidapena eskuratu behar da. Gonbidapenok, aldez aurretik Udarregi Ikastolan lor daitezke. Emanaldi egunean bertan bestela, saioa baino ordu erdi lehenago Sutegin.



**Sarrera doakoa da, baina aldez aurretik eskuratu behar da gonbidapena Udarregin, edo Sutegin saioa hasi baino ordu erdi lehenago.**

# Emakumeen Eguneko bertso-afarirako sarrerak asteburu honetan jarriko dira salgai

Martxoaren 8ari begira ekimenak antolatzen ari dira Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila. Lehen hitzordua, martxoaren 10erako deitu dute. Azken urteotan arrakastatsua suertatu den bertso-afaria ospatuko da Artzabalen, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin. Txartelak aurrez erosi ahalko dira 16 eurotan, Aitzaga eta Bordatxo tabernetan.



**Martxoaren 10eko saioan, Onintza Enbeita, Ane Labaka eta Uxue Alberdi (argazkian) arituko dira kantuan. 21:00etatik aurrera, Artzabalen.**

## Datozenak

### Martxoaren 4an, Zubietako galdeketaren aurkezpena

Zubietan galdeketa propioa egingo dute maiatzaren 7an. Antolaketa lanak dagoeneko abiatu dituzte. Martxoaren 4rako ekitaldi bat antolatu dute, eta bertan galdeketaren izena, logoa eta manifestua aurkeztuko dituzte. Argazki herrikoia ere aterako dute. Eguerdiko 12:00etan, Zubietako errebote plazan.

Oharra: galdeketa antolatzeko lan taldea, asteartero biltzen da, arratsaldeko 19:00etan Kaxkapen.

### Martxoaren 6an, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deituta, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

### Jai Batzordearen bilera berri bat

Uztaila urruti samar geratzen da, baina jaiak antolatzen hasteko garaia da. Otsailaren 13an egin zuten Santixabel jaietako lehen batzar irekia. Martxoaren 6an astelehena batuko dira berriro, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.






# Deskontu sarea, abian!




## Orain, BERRIAlagunek deskontuak tokiko saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
**berria.eus/berrialaguna/deskontusarea**

### Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua BERRIAlaunaren webgunean
2. Inprimatu kupoia deskontu sarea ataletik edo deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan BERRIAlagun txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen bidez berreskuratuko duzu:

- Dendak
- Jatetxeak
- Museoak
- Landetxeak
- Ikuskizunak
- Aisialdi guneak




**Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!**

berria
mundua-euskarari-emana


URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 7ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


Etorri eta dastatu sagardo berriak
30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hoberenak eskeintzen.
Iruin Sagardotegia
Iruin, beti zugandik gertu.
943.361.229
Petritza bidea 12, Zubieta


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


SAIZAR
943 37 39 95
Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela * *
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea